

Berrigara

BERGARA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a

625. zenbakia

GIZARTEA/ Bizitza kalitatea hobetzeko asmoz, gizartea, arlo ekonomikoa eta ingurugiroaren arteko oreka lortzea da helburua

Tokiko Agenda 21 herriko taldean 30 bat lagun ari dira, Bergarako egoera aztertzen

E.M.

Tokiko Agenda 21 herriko taldeak bilera egin zuen eguaztenean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. 30 herritar inguruk erantzun diote Udalak egindako deialdiari. Herritarren parte hartzearekin Tokiko Agenda 21 Plana garatzea da helburua.

Udaltalde 21 Debagoiena joan den urteko apirilean sortu zen eta orain herriz herri hasi dira lanean. Bergarako Udalak ere herritarren bizi-kalitatea hobetzeko urratsak emateko konpromisoa hartu du.

Debagoieneko Mankomunitatea ari da koordinazio lanetan eta Prospektiker eta Ingurune enpresak dabilta Udalarekin elkarlanean, egoeraren diagnosis egiteko. Era berean, herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin die Udaleko Ingurugiro Batzordeak:

deak: eguaztenean egin zuten bigarren bilera eta 30 lagun inguruk hartu zuten parte, bi taldetan banatuta. Hurrengo bilera jaien ostean egingo dute, maiatzaren 25ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Esan bezala, nahi duten herritar guztiek har dezakete parte prozesuan. Bergarako dituen sendotasunak, ahultasunak, mehatxuak eta aukerak izango dituzte aztergai hurrengo asteotan. Lan horretan kontuan hartuko

dira herritarren ekarpenak.

Behin egoera aztertuta, Ekintza Plana diseinatzea izango da hurrengo pausua. Bizitza kalitatea hobetzeko asmoz, gizartea, arlo ekonomikoa eta ingurugiroaren arteko oreka lortzea da helburua.

1992. urtean Rio de Janeiron egindako goi bileran sortu zuten Agenda 21 proiektua. Iraunkortasunean oinarritzen da eta ingurugiroak pisu handia dauka proiektuan. Igor Oiarbide Udaleko Ingurugiro Batzordeko buruak zera adierazi digu: "Gizartea, ekonomia eta ingurugiroa modu integral batean landu nahi dugu etorkizunean. Momentuz, herriaren diagnostikoa egiten gabilta eta pozik gaude herritarren partetik jasotako erantzunarekin. Behin diagnostikoa egin eta gero, egin beharrekoak zehaztu beharko ditugu. Hasiara baten, hurrengo urterako Ekintza Plana diseinatuko dugu".

*Bergarako dituen
sendotasunak,
ahultasunak,
mehatxuak eta
aukerak, aztergai*



Bi taldetan banatuta, 30 herritar inguruk hartu zuten parte eguazteneko bileran.

Euskal Herriak Bere Eskolak herriko hezkuntza izan du aztergai

E.M.

Euskal Herriak Bere Eskolak Bergarako Hezkuntza egoeraren azterketa izenburuko txostena aurkeztu zuen eguaztenean, prentsa aurrean. Hainbat ondorio atera dute egindako azterketatik.

Euskal Herriak Bere Eskolako (EHBE) kideek azaldu zuten zera izan da hezkuntzaren egoera aztertzeko arrazoia: "Euskal Herriko hezkuntza sistema propioa lortzeko bidean, ezinbestekoa zaigu herriz herriko hezkuntza egoera ezagutzeko. Azterketa xumea da, baina Bergarako EHBEk egin nahi duen lanaren abiapuntu garrantzitsua".

Hiru hilabete eman dituzte lan horretan. Txostenean jasotzen denez, "kasu ia guztietan euskalduntze integrala berma-



Ibai Redondo eta Maite Mujika EHBEko kideak eguazteneko prentsaurrekoan.

tu da Bergaran". Hala ere, herriko Lanbide Eskolak euskalduntzeko premia ikusten dute, lan mundua euskalduntzen laguntzeko hain zuzen.

Beste erronka bat etorkinen euskalduntzea izango dela esan zuten. EHBEk landutako txostena liburuxka baten jaso dute eta salgai izango da, bi eurotan.

LABUR

Miren Garbizu psikologoaren hitzaldia martitzenean, Mariaren Lagundia Ikastolan

Mariaren Lagundiak antolatutako hitzaldi sortaren barruan, Miren Garbizu psikologoak *Beldurrak, heriotza, galerak...*, nola tratatu? izenburuko hitzaldia egingo du martitzenean, maiatzaren 3an, Mariaren Lagundian, 18:00etan.

ONCEko 'El Combo' jokoak 36.404 euroko saria ekarri zuen Bergarara, zapatuan

ONCEko "El Combo" izeneko jokoak 36.404 euroko saria ekarri du Bergarara. San Martin plazako Onceko saltzaileak eman zuen saria joan den zapatuan. ONCEk jakitera eman duenez, Gipuzkoan orain artean "El Combo" jokoak eman duen saririk potoloena da Bergaran emandakoa.

Etorkinen egoera erregularizatzeko epea bihar, zapatua, amaituko dela abisatu dute

Udalak jakitera eman duenez, herrian bizi diren eta komunitarioak ez diren atzerritarren egoera erregularizatzeko epea maiatzaren 7ra arte egongo da zabalik.

Hori dela eta, erroldatze agiria lortzeko interesa dutenek, Udaleko Idazkaritzara jo beharko dute: bihar, zapatua, 09:00etatik 13:00etara izango da erroldatze agiria lortzeko aukera



BERRIGARA

Argazkian, Angiozarko irudi bat. Abiadura Handiko Trenaren proiektuak izango lukeen eragina aztertuko dute bihar.

GARRAIOAK/ Egindako lanaren balorazioa egin eta etorkizunerako lana finkatuko dute

AHT Gelditu! Elkarlanaren batzarra bihar, Angiozarren

E.M.

AHT Gelditu! Elkarlanak batzar orokorra deitu du biharko, zapatarako, Angiozarren. Abiadura Handiko Trenaren aurrean oposizioa agertu duten zenbait talde elkartuko dira egun osoan zehar Angiozarren, oposizio garai berri bati ekiteko asmoz.

AHT Gelditu! Elkarlanak jakitera eman duenez, 60 bat lagun izango dira bihar Angiozarren, Abiadura Handiko Trenaren ingurukoak aztertzen. Besteak beste, Aralar, Zutik, Batasuna, LAB, ESK, EHNE, Ekologistak martxan edota gaztetxeetako ordezkariak elkartuko dira.

AHT Gelditu! Elkarlana 2000. urtean sortu zen, eta ordutik hona taldeak egindako ibilbidea izango dute aztergai biharko batzar

orokorrean. Jardunaldia 10:30ean hasiko da eta amaiera 18:00etarako iragarrita dago.

MOMENTU KRITIKOA

Biharko batzarra egiteko arrazoietakoa bat AHTren proiektua momentu kritiko baten aurrean dagoela da. Hala adierazi digu Mila Elortza AHT Gelditu! Elkarlaneko ordezkariak: "Alde bategatik Eusko Jaurlaritzaren presionatzen ari da Gipuzkoako zatian behinik behin lanak hasteko, eta

bestetik, Espainiako Sustapen Ministerioak Bilbo eta Gasteiz arteko zatian eraikuntza-proiektuak idazteko eta lur-desjabetzeak egiteko agindua eman du dagoeneko. Kezkatzeko moduko egoera da oraingoa, desjabetzeak martxan daudelako. Bilbo eta Gasteiz artean Kanpazarren tunela egitea aurreikusita dago eta gure taldeak aurrerantzean egingo duen lana aztertuko dugu biharko jardunaldian".

HAUSNARKETARAKO JARDUNALDIA

Beraz, oposizio garai berri bati ekiteko jardunaldia izango dute bihar AHT Gelditu! Elkarlana taldeko kideek. Emango dituzten urrats berriak eztabaidatu, proposamenak egin eta dinamika berria proposatzea da biharko jardunaldiaren helburua, "oposizioak gora egin eta borroka areagotu dela erakusteko" diote.

*Alderdi politiko,
sindikatu edota
ekologista taldeetako
60 bat lagun
elkartuko dira bihar*

LABUR

1968. urtean jaiotako bergararrek maiatzaren 28an egingo dute afaria

1968. urtean jaiotako bergararren afaria izango da maiatzaren 28an. Egun horretan Sagarpen elkartuko dira, 19:30ean. Izena emateko epea maiatzaren 13ra arte izango da zabalik. Interesatuak 10 euro ordaindu behar dituzte Euskadiko Kutxan irekitako kontuan.

Bergarako Orfeoien urteko batzarra izango da martitzen gauean, Zabalotegin

Bergarako Orfeoiko kideek urteko batzarra egingo dute martitzen gauean, hilaren 10ean, Zabalotegin, 22:30ean. Besteak beste, zuzendaritzaren berritzea izango dute aztergai. Orfeoiko kideei batzarreko joateko deia egingo die zuzendaritzak.

Xipizaroren udalekuearako izenematea zabalik maiatzaren 15era arte

Xipizarok udan antolatzen dituen udalekuearako izenematea zabalik izango da maiatzaren 15era arte, aste barruan 17:00etatik 19:30era. Xipizarok Seminarioan duen egoitzan. Argibideak 943 76 23 76 telefono zenbakian.

Martoko eta Zubiaurreko jaien azken txanpa aste bukaeran

E.M.

Asentzio jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran Martokon eta Zubiaurren. Bihar, zapatua, salda eta txorizoa banatuko dute Zubiaurren, 11:00etan. Arratsaldean, mus txapelketa jokatu da Kabia tabernan, 16:00etan, eta 17:00etan haurrentako jolasak izango dira Martokon. Buruhandien eta dantzarien saioaren oste-

an, San Migelpen txokolatada egingo da, 18:00etan, eta gauean Ator taldearekin dantzaldia.

DOMEKAN MEZA SAN MIGELEN

Domekan, 09:00etan Udal Txistulariekin diana izango da eta jarraian txokolatada eta San Migelera igoera. Mezaren ondoren luntxa izango da. Arratsaldean tute txapelketa jokatu da Txarran txan, 16:00etan hasita.



BERRIGARA

Argazkian, Aritzetako San Migel ermita.

**Txuringo
Jatetxea**

*Maiatzaren 1etik aurrera
igandeetan zabalik*

Osintxu auzoa • Bergara • Tel.: 943 76 48 63

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

**Ion Murgizu
margoak**

Margolanak orokorrean
Margo dekoratiboa
Margo industrialia

Esozia etorbidea 24, 2. behea
SORALUZE
943 75 13 24 / 652 777 030
iiion@euskalnet.net

ARTEA/ Abdon Juaristi zenaren erakusketa ekainaren 12ra arte izango da ikusgai

Aroztegiko aretoaren inaugurazioa eguenean

E.M.

Aroztegiko aretoaren inaugurazioa egingo dute eguenean, maiatzaren 12an, 19:00etan. Abdon Juaristi zenaren erakusketa antologikoa zabalduko dute egun horretan. Juaristiren garai ezberdinetako koadroak ekainaren 12ra arte izango dira ikusgai.

Mertxe Lasa Abdon Juaristiren alargunak Udalaren eta Beart, Bergarako Artisten Elkartearen laguntza izan du erakusketa antolatzeke orduan. Eguntan erakusketa gertatzeko azken lanak egiten izan dira Aroztegiko areto berrian.

Mertxe Lasak aurreratu digunez, "gure bildumako Abdonen koadroez aparte, han eta hemen banatutako hainbat lan jaso ditugu. Ez da erraza horrenbeste koadroren artean aukeraketa egitea, baina bere ibilbidean adierazgarri izan diren lanak izango dira ikusgai. Nagusiki 1970etik hona margotutako koadroak dira, estilo eta formatu ezberdinetakoak. Hainbat akuarela eta *guach* ere jarriko ditugu".

Guztira, Abdon Juaristiren (1948-1997) 30 bat koadro izango dira ikusgai, ekainaren 12ra arte. Jaietan 12:00etatik 14:00etara izango da zabalik erakusketa.

ARROZTEGIKO ATEA IKUSGAI

Juaristiren familia eta lagunekin batera, Victoriano Gallastegi



BERRIGARA

Aroztegiko aretoa erakusketak, hitzaldiak edota kontzertuak jasoko ditu.

alkatea eta Udaleko ordezkariak izango dira egueneko inaugurazio ekitaldian, 19:00etan.

Hasieta baten Aroztegiko aretoa joan den irailean zabaltzekoa zen baina lanak uste baino gehiago luzatu dira. Aroztegiko atea

(XVI. mendekoa) areto barruan izango da ikusgai aurrerantzean. Areto berriaren sarreran ate berria jarri dute.

Erakusketak, hitzaldiak eta formatu txikiko kontzertuak egiteko erabiliko da aretoa.

LABUR

1935ean jaiotako bergararrek bazkaria egingo dute datorren ekainaren 12an

1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 12an Zumelaga jatetxean, 14:30ean. Izenematea ekainaren 8ra arte izango da zabalik. Interesatuak 12 euro ordaindu beharko dituzte Euskadiko Kutxan zabalduko kontuan. 1935ean jaiotakoek 70. urteurrena ospatuko dute aurten.



Miguel Altuna ikastetxea saritu dute

Miguel Altuna ikastetxeak *Investors in people* izendapena jaso zuen aurreko eguaztenean, Donostiako Miramar jauregian. Miguel Altunako ordezkariekin batera, besteak beste, Angeles Iztueta Hezkuntza sailburua eta Jorge Arevalo Lanbide Heziketako sailburuordea izan ziren.

Besteak beste, konpromisoa, planifikazioa, ekimena eta ebaluazioa dira *Investors in people* izendapenak kontuan hartzen dituenak. Elgoibarko IMH eta Tolosa, Usurbil eta Bidasoako Lanbide Heziketako zentroek izendapen bera lortu dute. Goi-ko argazkian, Miguel Altunako ordezkariak Miramar jauregian, joan den asteko ekitaldian.



- ▶ margo orokorra
- ▶ margo dekoratiboa
- ▶ umeentzako dekorazioak
- ▶ bidriren margolanak
- ▶ imitazioak

Sagasti auzoa Z^a 5-3D
20577 ANTZUOLA - 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 62 13 / 665 733 955
687 570 777

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkalea 21 BERGARA



943 76 20 61
BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34



Musika eta liburuak



bilintx

lbargarai 12 - 20570 BERGARA Tel.: 943 76 40 50 Faxe: 943 76 23 52
bergara@megadenda.com http://www.megadenda.com

eej erakundeak elkarlanean funderoa

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



lbargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA ONATI
943 76 45 53 943 78 24 13

PILOTA/ Mariaren Lagundiko alebin mailako pilotariak, Gipuzkoako Eskola Arteko txapeldunak

Bergara Hiria txapelketako finalerdiak martitzenean

EDU MENDIBIL

Martitzenean, Bergara Hiriko finalerdiak izango dira Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Diaz-Okiñena bikotea (nagusien mailan) eta Apezetxea eta Diaz de Ulzurrun (22 urtetik azpikoetan) finalerako sailkatu dira. Martitzenean erabakiko dira euren aurkariak.

Beste bikote finalistak erabakitzeko ondoko partiduak jokatuko dira martitzenean, 19:30ean hasita: 22 urtetik azpikoetan mailan, Renobales-Iraola eta Uriarte-Zabala bikoteak izango dira aurrez aurre; jarraian, nagusien mailan, Berasaluzek eta Apraizek Erauskin anaien aurka neurtuko dituzte indarrak.

Astelehenean, hilaren 2an, Lasak eta Gutierrezek 22-11 galdu zuten Erauskin anaien aurka.

GIPUZKOAKO TXAPELDUNAK

Bestalde, Mariaren Lagundiko alebin mailako pilotariak Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketa eskuratu dute. Mikel Gallastegi, Igor Igartua, Beñat Rezusta eta Eneko Zabaleta 5-3 irabazi zieten Astigarragako Arantzazuko Ama Ikastolako ordezkariari, Azpeitian jokatutako finalean. Txapela, domina eta trofeoa eskuratu zituzten pilotari gaztetxoek.



PILOTA SAILA

Igor Igartua, Mikel Gallastegi, Beñat Rezusta eta Eneko Zabaleta Gipuzkoako Eskola Arteko txapeldunak izan dira.

*Lasak eta Gutierrez
bergararrak
Erauskin anaien
aurka galdu zuten*

Aurretik, Debagoieneko txapeldun izatea lortu zuten.

HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Herri Arteko Txapelketaren lehen kanporaketan, berriz, Bergarak Zegama hartu zuen egubakoitzean, Udal Pilotalekuan. Bergararrak 2-1 nagusitu ziren; kadete

mailakoa galdu eta gazte eta senior mailetakoko partiduak irabazi zituzten etxekoek. Gaur, egubakoitza, itzulerako partiduak jokatuko dira Zegaman, 19:30ean. Bergarako pilotariak aurre egitea lortzen badute, Lazkaoren aurka jokatuko dute hurrengo kanporaketa.



Athleticzaleak, Sevillaren aurkako partiduan izan ziren San Mamesen

Peña Athletic Bergarako kideak Athletic-Sevilla partidua ikustera joan ziren San Mamesera, joan den apirilaren 24an. Hala ere, ez zuten euren taldearen garaipenarekin gozatzetik izan; Sevillak 1-3 irabazi zion Valverderen taldeari. Berrogei bat lagun joan ziren Bilbora egindako irteeran; argizkian Alde Zaharreko Athleticceko Peñaren egoitzaren ondoan ikus ditzakezue.

Orain, Sevillako beste taldearen aurka, Betisen kontra, Athleticcek Kopako finalerdia gainditzeko itzaropentsu daude Bergarako Athleticzaleak. Gabarra aterako dute aurten?

LABUR

Eskubalo partiduak izango dira domekan kiroldegian

Domekan, kadete mailako mutilen eskubalo taldeak Arrasateren aurka jokatuko du Labegarrietako kiroldegian, 10:45ean.

Ondoren, gazte mailako neskek Elgoibar hartuko dute. Partidua eguerdiko 12:15ean hasiko da.

Futbito txapelketako partiduak domekan

Domekan, futbito txapelketako partiduak izango dira kiroldegian: Txipiron-Canalejas (09:30ean), A Ze Flaxa-Errortagain (10:30ean), kanpoan biak, eta kiroldegiko kantxan, berriz, De Resaka-Fit (18:00etan) eta Pirulotarrak-Agirrebeña (19:00etan).

Ipintzako txapelketarako izenematea zabalik

Maiatzaren bukaeran hasita, adin mugarik gabeko futbol txapelketa, beteranoen mailako futbol-7 txapelketa eta emakumeei zuzendutako futbol-7 txapelketa jokatuko dira Ipintzan. Izenematea maiatzaren 13ra arte zabalik.

Beti-Busti taldea bosgarren sailkatu zen La Seu d'Urgellen

E.M.

Beti-Bustiko piraguistek Espainiako Kopako hirugarren kanporaketa izan zuten aste bukarran, La Seu d'Urgellen. Kadete mailan, Leire Fernandez 5.a izan zen eta Mikel Alustiza 12. postuan sailkatu zen; junior mailan, Markel Cestafe 4.a izan zen, Martxel Alberdi eta Ibon Etxezarretaren aurretik; senior mailan, Markel Agirre (12.a), Eneko Iturrospe

(13.a), Iraitz Artola (14.a), Roberto Puy (18.a) eta Gorka Fernandez (21.a) lehiatu ziren; beteranoen mailan, Iñaki Gallastegi 5. postuan sailkatu zen. Taldekako sailkapenean Beti-Bustik bosgarren postua eskuratu zuen.

ESKOLA ARTEKO TXAPELKETA BIHAR
Bestalde, Gipuzkoako Eskola Arteko Txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, Bergaran, Bideberri inguruan, 16:00etan.



Lleidan 5.a izan arren, Euskadiko Kopan bikain ari da Leire Fernandez.

ANTZERKIA/ Radio Euskadiko izen bereko irratsaioaren moldaketa da antzezlan

'Cocidito madrileño' antzezlan gaur frontoian

E.M.

Glu glu antzerki taldearen eskutik, *Cocidito madrileño* antzezlan ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Estreinatutako sekulako ikusmina piztu du antzezlanak. Gaur sarrera gutxi batzuk salgai jarriko dituzte.

Cocidito madrileño antzezlan Javier Vizcaino kazetariaren izen bereko irratsaioaren moldaketa da. Hain zuzen ere, Radio Euskadiko *Mas que palabras* saioan, *Cocidito madrileño* izeneko tartean, beste irrati-kate batzuetako tertulietan esaten dituzten *perlak* batzen dituzte.

Glu glu taldearen antzezlanean, *Azul-colorao* irratsaioa ikusteko eta entzuteko aukera izango dugu. Bost aktorek 70 pertsonaia inguru antzeztzen dituzte eta, besteak beste, eskal politika, kirola, ikastolak, eliza, euskara edota homosexualitatearen hizpide izango dituzten antzezlanak dira.

Gidoigileetako bat izateaz gain, antzezlaneko protagonistetako bat dugu Galder Perez: "bost lagunen artean horrenbeste pertsonaia antzezteak erronka handia da guretzat. Komunikabideen eragina gehiegizkoa da, kasu batzuetan. Guk komedia egin dugu, baina komedia baten bidez ere gauza asko esan eta pentsaraz daitezke" dio Perezek.



GLU GLU PRODUKZIOAK

Eliza, kirola edota eskal politika izango dira hizpide gaurko emanaldian.

*Gaur 50 sarrera
jarriko dituzte
salgai frontoiko
leihatilan,
21:00etan*

SARRERA GUTXI BATZUK SALGAI GAUR
Ikusleen partetik sekulako erantzuna jaso du antzezlanak. Gaurko emanaldirako sarrerak orain dela hilabete eta erdi agortu ziren. Dena dela, gaur beste 50 sarrera jarriko dituzte salgai frontoiko leihatilan, 21:00etan. Gehienez bi sarrera erosi ahal izango ditu pertsona bakoitzak.

LABUR

Irukurutzeta Eguna ospatzeko erromeria egingo dute domekan, bazkal ostean

Irukurutzeta eguna ospatuko da domekan, hilaren 8an. Pago bedeinkatua meza izango da 11:00etan, ondoren salda eta txori-zoa, 13:30ean Irukurutzetara igoera eta bazkal ostean erromeria trikitilariekin, 15:30ean. Jaitsiera 18:00etan egingo dute.

Minies italiar taldeak eta Hotel donostiarrek emanaldia egingo dute gaur, gaztetxean

Milango Minies eta Donostiako Hotel taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Bergarako gaztetxean, 22:30ean.

Bihar, zapatua, Suspenders, Oi Kobras eta Kalekumeak taldeek joko dute gaztetxean, 22:30ean.

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak kultura etxean maiatzaren 11tik 22ra

Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak kultura etxeko erakusketan aretoan ikusgai izango dira maiatzaren 11tik 22ra bitartean. Bihar, zapatua, jakitera emango dituzte aurtengo lehiaketako irabazleak zeintzuk izan diren.

Sari banaketa ekitaldia maiatzaren 20an egingo dute kultura etxean, 20:00etan.

Amaia Rodriguez bergararraren lan bat nabarmendu dute aurtengo Azkue sarietan

Euskaltzaindiak 11 urtetik 18ra bitarteko gaztetxoei zuzendutako Azkue sarietan Amaia Rodriguez Argandoña *El mundo de los sueños* lanarekin nabarmendu dute. Berrizko narrazio arloan, Rodriguezen *Ispilu atzeko deabrua* izenburuko lana argitaratzeko gomendioa egin du aurtengo epaimahaiak.

Luis Alfonso Gamez kazetari zientifikoaren hitzaldia martitzenean, Ilatargiren eskutik

Ilatargi Astronomia Elkarteak antolatuta, Luis Alfonso Gamez kazetari zientifikoak hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 10ean, kultura-etxean.

Gamezek *Verdad y mentira de los fenómenos paranormales* izenburuko hitzaldia egingo du, 19:00etan. Gaiarekin interesatutako guztiei hitzaldira joateko gonbidapena egiten die Ilatargik.

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE

MUJIKÀ FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8. 943 76 28 67. BERGARA

Eguneko menuak!

ZUHAIZTI
taberna

Astelehenetik ostiralera
eguneko menuak Zuhaitzin.

Ordutegia: 12:30etik 15:00etara.

Espaloia 6 Bergara Tel.: 943 76 59 22

E, TXO!

GUREGAIK/ GOMENDATZEN DIZUT

**AUZOLANDEGIAK
MARTUTENEO PRESOEKIN**

Espetxe pastoralak antolatuta udan Martuteneo presoekin lan egiteko aukera izango da. Auzolandegiak uztailearen 18tik 25era bitartean izango dira eta 21 urtetik gorakoek hartu ahal izango dute parte. Informazio gehiago honako telefonoan eskuratu daiteke: 943 27 92 50. Izena emateko epea plazak bete artean egongo da zabalik.

**BLOG & ROLL TXAPELKETA
HILAREN AMAIERARA ARTE**

El Diario Vasco egunkariak Blog & Roll txapelketa antolatu du bere webgunearen erabiltzaileendako. Maiatzaren 31ra bitartean gune horretan blog bat sortu beharko da. Hiru gairen gainekoak izan daitezke blogak: kirola, gaurkotasuna edo aisialdia eta zaletasunak. Atal bakoitzerako sari bat egongo da. Parte hartu nahi dutenek honako helbidera idazki behar dute: www.diariovasco.com

**GARAGARDOAREN GAINEKO
IKERKETA BEKA**

Garagardoa eta Osasunaren Gaineko Informazio Zentroak bi beka emango ditu garagardoak osasunarekin eta nutrizioarekin duen zerikusia ikeritzeko. Zientzia karrerarako azken urteko eta graduondoko ikasleendako dira bekak. 1975. urteaz gero jaiotako goi mailako tituludunek edo lizentziatuek ere egin dezakete eskaria. Espainiako unibertsitate eta ikerketa zentroetako zuzendari batek gidatu beharko du ikasleon proiektua. Beken gaineko informazio gehiago 913 83 30 32 telefonoan edo honako helbidean jaso daiteke: www.cervezaysalud.com.

Ana Moñuxen gomendioa saritu dute Bergaran

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gazte informazio bulegoak abian ipinitako Gomendatzen dizut sariketarako badu irabazlea. Guztira 15 gomendioa jaso dituzte eta guztien artean zozketa eginda Ana Moñuxek jasoko du saria.


Gomendatzen dizut sariketarako gomendioak aurkezteko epea amaituta, Bergarako Gazte Informazio Bulegoan 15 gomendio jaso dituzte guztira.

Gomendioak hamar neskek eta hiru mutilek egin dituzte. Adinari dagokionez, igorleak 4 eta 46 urte bitartekoak izan dira. Bakarra bidali dute postaz eta gainontzekoak eskura eman.

Hainbat gomendio mota jaso arren, gehienak ikusteko lekuen eta ostatuen ingurukoak izan dira. Paisaia eta eraikinen gaineko bakarren bat ere jaso dute. Gomendatutako lekuen artean, berriz, denetarik dago: Euskal Herriko txokoak, Espainiakoak, Europakoak eta New York-eko gomendiorik ere jaso da.

IRABAZLEA

Jasotako gomendioen artean zozketa egin eta Ana Moñuxek irabazi du asteburuko egonaldia nekazal etxe batean. Berak Plentziako aterpetxea gomendatu du. Herri polita izateaz gain, Bilbotik gertu dagoela esan du; eta aterpetxeko zerbitzuak eta instalazioak primeran daudela.



Plentzia herri polita delako aukeratu du, besteak beste, Ana bertako aterpetxea.

LOTSABARIK/ Garazi Arantzabal

“Durugogorra naizela esaten didate”

IRATI AGIRREAZALDEGI

Eskolatik irten eta bazkaltzera joan aurretik gurera egin du bisita Garazi Arantzabalek. Gosea asetzeko presaz, azkar-azkar erantzun die gure galderei, asko pentsatu gabe. Etorkizunean ere ez omen du asko pentsatzen.

• Alkate izango bazina, zer aldatuko zenuke?

Gure adinekoendako gauzak ipiniko nituzke; egoteko toki bat, adibidez. Bestela parkean baino ez gara egoten eta.

• Zure karpetan zer irudi edo pegatina daukazu?

Ez ditut asko, baina ditudanak Euskal herriko gaien gainekoak.

• Telebistako saiorik gorrotagarriena? Eta gustukoena?

Arratsaldeetan egoten diren txutxu-mutxu saioak gorroto ditut. Gustatzen zait, bestalde, *Los Serrano* teleaioa.

• Pertsonaia higuigarriena? Eta gustukoena?

Famatu ustekoek, *Salsa Rosa* eta antzerako saioetan agertzen direnek higuina ematen didate. Aranburu futbolaria berriz, gustuko dut.

• Zerk amorratzen zaitu?

Nire bizkar nigatik gaizki esaka jarduteak

• Zer estimatzen duzu besteengan?

Entzuten jakitea eta behar denean laguntza ematea.

• Zeri ematen diozu lehentasuna bizitzan?

Familiari eta lagunei.

• Zure bertute bat? Eta akats bat?

Burugogorra naizela esaten didate; baina era berean ingurukoek entzuten badakit.

• Zelan ligatzen duzue gazteok?

Zaila da ligatzea, baina ligatzekotan jaietan.

• Zure bikotekide ideala zela-koa izango litzateke?


Jatorra; ahal dela beltzarana.

• Nora eta norekin egingo zenuke bidaia bat?

Lagunekin edozein tokitara.

• Etorkizunerako amets bat?

Ez dut etorkizunean pentsatzen. Datorrena hartu eta kito.



ADINA: 15 urte • **IKASKETAK:** DBH 4. maila • **ZALETASUNAK:** Lagunekin ibiltzea • **LIBURU BAT:** *La fraternidad de Eihwaz*, Cesar Mallorquirena
FILM BAT: *El reino de los cielos* • **MUSIKA TALDEA:** Berri Txarrak • **KIROL TALDEA:** Euskal Selektzioa

TIRABIRAKA/ Joseba Lasa



MINGAINARITIRAKA



Maria Jesus Olabarria

JOLAS OPARI DENDAKOA

Pazkoetan 19 urte etorriko dira Marijek Jolas denda zabaldu zuela. Oso zinema zalea da eta ez dago batere konforme Bergaran dugun egoerarekin. Kirola egitea, mendian ibiltzea, irakurtzea eta lagun arteko tertuliak ere oso gustuko ditu.

Lehengusuak 11 urte egin ditu eta ez dakit zer opari egin. Zer aholkatuko zenidake?

Muntatzeko Lego edo horrelako jolasen bat; bestela, arropa: kamiseta bat, jertse bat... Neskei opariak egitea askoz errazagoa da: belarritakoak, arropa, poltsak...

Zeure txikitako jolasik gustukoena?

Tortolosak; gure garaian, benetakoekin jolasten genuen, gero hasi ziren plastikozkoak saltzen. Sokasaltoan eta gomarekin ere ibiltzen ginen.

Opari asko egiten dituzu? Egin duzun azkenekoa?

Bai, asko gustatzen zait opariak egitea; gustuko zerbait ikusi orduko, zeini oparitu pentsatzen jartzen naiz. Azkena ilobari egin nion, jertse bat.

Eta asko jasotzen dituzu? Jaso duzun azkenekoa?

Bai, jasotzen ditut; gainera, neure buruari opari asko egiten dizkiot, ondo zaintzen naiz. Orain dela gutxi poltsa bat oparitu diot neure buruari.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Zinemara joatea, mendian ibiltzea, lagunekin tertulian egotea, irakurtzea, kirola egitea...

Liburu bat?

La conjura de los necios, John Kennedy-rena, eta *Crónica de una muerte anunciada*, Gabriel Garcia Marquez-ena.

Film bat?

La cena de los idiotas.

Bizitzeko toki bat?

Herri ez txikia ez oso handia ere; hori bai, zerbitzu guztiak eskaintzen dituen.

Bergarak zer falta du?

Zerbitzu asko, momentu honetan, zinema, batez ere. Inguruko herriei begiratu eta dituzten gauza onak geurera ekarri beharko genituzke. Elgetara begiratu besterik ez dugu; ikusi zelako kafe antzokia egin duten!

Bukatzeke, amets bat?

Jende guztia zoriotsu izatea; zorientasuna behar dut inguruan.

AINZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

EDURNE PEREZ

34 URTE / GARAPEN ETA KOMUNIKAZIO KOORDINATZAILEA / VALENTZIA

“Valentziarrek segituan zabaltzen dizkizute ateak, baina, itxi ere segituan ixten dizkizute”

AINZANE IRIZAR

Urte mordo darama Edurnek Valentzian: “Hogeita bat urte nituen hona iritsi nintzanean. Bergararekin nekaturta nengoen eta aldatzeko beharra neukan; horrelaxe etorri nintzen Valentziara”, gogoratzen du Edurnek. Bere asmoa, baina, ez zen han bizi izaten geratzea. “Oporretara etorri nintzen, pare bat hilabete pasatzerara, baina, azkenean, gustua hartu nion”, diosku.

Valentziara iritsi eta berehala Erakustazokan lanean hasteko aukera sortu zitzaion; onartu egin zuen eta, konturatu orduko, bizitza berri bati ekin zion.

Oso erraza egin zitzaion Edurneri Valentziara moldatzea, eta horrelaxe azaldu digu: “Jendea oso irekia da eta oso ondo hartu ninduten hasieratik; valentziarrek segituan zabaltzen dizkizute ateak, baina, zabaldu dizkizuten erraztasun berarekin ixten dizkizute ateak. Euskaldunok itxiagoak eta hotzagoak gara, baina, guk eskaintzen dugun adiskidetasuna sendoagoa da, seguruagoa”, azaldu digu. “Valentziarren adiskidetasuna *fallekin* konparatzen dute: hasieran oso handia eta ikusgarria dela dirudi, baina, bi egunetan erretzen da”, gaineratu digu.

“Izugarri gustatzen zait Valentzia eta hemen zelan bizi naizen”, dio. Euskal Herrian bizitza maila altuagoa den arren, Valentzian bizi-kalitate altuagoa dutela dio Edurnek: “Etxebizitza bat neuk bakarrik erosi ahal izan dut, bakarrik bizi naiz, urtean hiru bat aldiz joaten naiz oporretara... Euskal Herrian, berriz, nire soldatarerekin, ezin izango nuke horrelakorik egin”.

Bestalde, Valentziako klimak ere maitemindu egin zuen Edurne: “Zoragarria da hemengo klima; ia urte guztian hondartzara joateko aukera izatea gauza ederra da”.

“Bisitan oso gustura joaten naiz Bergarara, baina, bizi izatera ez nintzateke itzuliko”

Gainera, hondartzatik bost minutura bizi da Edurne. “Dena dela, oso hiri itsusia da Valentzia”, gaineratu digu.

Edurne, pozik bizi den arren, hemengo hainbat gauzaren hutsunea ere nabaritzen du berak: “Batez ere, familia-

ren, lagunaren eta Bergarako lasaitasunaren hutsunea nabaritzen dut; Valentzia, askotan, oso estresantea da”.

Mediterraniar kostaldean bizi izanda, normala den moduan, bisita ugari jasotzen ditu Edurnek bere etxean; berak ere bisita ugari egiten ditu Bergarara, urtean hiruzpalau aldiz etortzen da; oraingo asteburuan bertan, hementxe dago Edurne.

Bisitan bai, baina, hona bizi izatera itzultzeko batere asmorik ez duela aitortu digu: “Hementxe daukat nire bizimodua, eta oso gustura bizi naiz; ezin naiz hemendik joan, ezin dut”, adierazi digu.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



POL-POL Taberna


943 76 07 78. Bergara

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

XVII. mendeko ze etxetan dago ezkerreko farola eta ze plazatan eskumakoa?



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ARANTZA EGAÑA arendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Arantza!
Galderaren erantzun zuzena: **Artekale kalean.**



BONOFOTOKO GALDERAREN ERANTZUNA:

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Font Vella ur botila

1,5 l

0,39 €

65 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Asentzio eguna San Migelen

Mendekoste-domeka baino hamar egun lehenago ospatzen da Asentzio eguna eta ohiturari jarraituz meza izaten da egun horretan Aritzetako San Migel ermitan. Atzo, eguena, San Migelera joaterik izan ez zutenek, domekan meza izango dute berriz, 11:00etan. Aurretik, 09:00etan, Udaltxistulariekin diana eta Beti-Alai elkarteak eskainitako txokolatada izango da. San Migelera igo ondoren, mezaren ostean, luntxa izango da bertara joandako-erandako.

Uzarragako On Isidro Legorburu zena hil zenetik, urtean bitan bakarrik zabaltzen dute Aritzetako San Migel, Asentzio eguna eta San Migel eguna ospatzeko, hain zuzen. Alboko argazkia 1956.



urte ingurukoa da. **On Ramon Laborda** da meza ematen ari dena, herritar mordoa inguruan dituela.

Argazkia: Margarita Mujika

ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zataz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

FARMAZIENTXANDA

- EGUBAKOITZA, 6**
CAMACHO, Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74
- ZAPATUA, 7**
ZABALA, Barrenkalea 25 . . . 943 76 16 87
- DOMEKA, 8**
ZABALA, Barrenkalea 25 . . . 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 9**
GUALLAR, San Antonio 5 . . . 943 76 11 05
- MARTITZENA, 10**
ESTELLA, Matxiategi 5 . . . 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 11**
MOZOS, Iparragirre 2 . . . 943 76 12 15
- EGUENA, 12**
CAMACHO, Oxirondo 4 . . . 943 76 11 74

TELEFONOAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) . . . 943 03 54 00
 - Bergarako Udaltzaingoa . . . 943 77 91 06
 - Antzuolako Udaltzaingoa . . . 943 76 62 46
 - Ertzaintza . . . 943 53 47 20
 - Osasun etxea . . . 943 76 24 40
 - Asepeyo . . . 943 76 16 43
 - Pakea . . . 943 76 13 49
 - Angiozarko medikua . . . 943 78 90 27
 - Antzuolako medikua . . . 943 76 62 23
 - Odol emaleak . . . 943 76 16 24
 - Alkoholiko Anonimoak . . . 943 76 51 06

- GARRIAOK**
- Taxiak . . . 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea . . . 943 77 91 00
 - Antzuolako Udaletxea . . . 943 76 62 46
 - Udal Artxiboa . . . 943 77 91 32
 - Igerilekuak . . . 943 76 20 51
 - Kultura etxea . . . 943 77 91 58
 - Liburutegia . . . 943 77 91 62
 - Kiroldegia . . . 943 76 56 41
 - Mizpirualde egoitza . . . 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia . . . 943 76 14 92
 - Erregistroa . . . 943 76 13 15
 - Jardun . . . 943 76 36 61
 - Postetxea . . . 943 76 26 85
 - Bedelkar . . . 943 76 04 68
 - Akulu AEK . . . 943 76 05 18
 - Udal Euskaltegia . . . 943 76 44 53
 - Bergarako notariotza . . . 943 76 10 73

MEZAK

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
 - San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

URBANOAK

- San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
- GERALEKUAK:** San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorakuze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraia (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.
- Labegaraia/Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
- GERALEKUAK:** Labegaraia, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolvia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ATREBENTZIAEZPADA/ Aroztegiko erakusketa aretoa zabalduko dute. Joaten zara erakusketetara?




JUAN MARI ITURBE



MAITE IBARZABAL




ARANTXA JAUREGI



JAVIER LAZPIUR



ESTHER ARRIARAN



JOSE CARLOS IBAIBARRIGA

Bai, gutxi egoten diren arren daudenean ni oso gustura joaten naiz. Argazkie-nak ditut gogoko eta inoiz antzinako gauzekin ipini-takoren bat ere gustatu zait. Orain ere Aroztegira joaten jarraituko dut.

Askotan esaten dut ikuste-ra joan behar naizela eta gero epea amaitutakoan konturatzen naiz. Hala ere, gustuko ditut. Orain denon eskura, kale-kalean ipiniko dituztenez, sarriago joango naizela uste dut.

Ez, ez naiz sarritan era-kusketetara joaten. Ezagun-baten lanak baldin badira agian bai, baina gai-nontzean ez. Baliteke, orain aretoa herri erdian egonda erakusketa gehiago ikuste-ra joatea.

Bai, sarritan joaten naiz eta Aroztegira ere joango naiz. Pintura eta argazkiak ditut gustuko, agian pintu-ra zertxobait gehiago. Ber-garan ez ezik inguruan egi-ten dituzten erakusketak bisitatzea ere joaten naiz.

Bai, noizean behin joaten naiz, batez ere herriko artis-ta gazteen erakusketak direnean. Orain ere Aroz-tegiko aretora joango naiz, gehien bat argazkiak dau-denean, argazkiak asko gus-tatzen zaizkit eta.

Ez dut erakusketetara joa-teko joera handirik, arte-lanen munduak ez nau hainbeste erakartzen, bai-na lagunen batek esanez gero edo bisitatzen ditut. Orain gertuago egonda agian errazago joango naiz.


TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK BIDE GORRIA Gazte talde bat etorri zaigu esanez, Ber-garan bide gorri bakarra dagoela eta eurek herri barruan beste bat nahi dutela. "Labegaraietara joaten ez digute lagatzen eta herri barruan ipintzea eskatzen dugu, bizikletan ibiltzea gustatzen zaigu eta. Horre-tarako sinadurak jasotzen hasi gara", esan digute /I.A.

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Parranderua"



—Parrandero majua eindda ago.

JON IRAEGI

BESTE EKESANA

“ Enpresek garraio az-karra eta merkea es-katzen dute, hori da gaur egungo eredia. Produktu asko bertan izan arren, urrutitik ekartzen dituzte eta bertakoa eraman, zentzugabeko eredu globalaren ondorioz. Garraioa merkea bada, ugaria izan behar da errentagarria izan dadin. Ondorioz, errepideak kamioiz bete dira eta agintariak beldurtu. Garraiolari-ero eta gehiago eskatzen diete. Lan erritmoa azkartu da eta horrek garraiolariaren bizi baldintzetan eragina du. Bizi-lan baldintzak kas-kartzen badira, segurtasuna ere bai. Euskal garraiolariaren ustez, bidez-koa eskuratzea eta lan baldintza kaskarre aurre egitea beharrezkoa da segurtasuna ziurtatzeko”
JON ALTUNA / Hiru sindikatu-
'Gara'/05-05-01

HAUGIROA!

MINIMOA 5 °C
Eguaztena, 27

MAXIMOA 32 °C
Egubakoitza, 29

ASTEKO EURIA (l/m²) 0,8 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 27	24 °C	5 °C	— l/m ²
Eguena, 28	28 °C	7 °C	— l/m ²
Egubakoitza, 29	32 °C	8 °C	— l/m ²
Zapatua, 30	31 °C	10 °C	— l/m ²
Domeka, 1	31 °C	11 °C	— l/m ²
Astelehena, 2	28 °C	12 °C	— l/m ²
Martitzena, 3	23 °C	9 °C	0,8 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

BERAIEK DIÑO/ Ainhoa Agirreazaldegia



Nafarroa:
Ikurr(inar)en
legea

Egunero ikusten dut, nahi eta nahi ez, ni baino hiru aldiz handiagoa den espainiar bandera herriko udaletxean. Bost metro karratu. Eta niri, haizeak ere ezin duela mugitu iruditzen zait. Astuna dirudi oso, berunezkoa. Tafallan gaude.

Maite ditut herriak. Maite ditut hizkuntzak, hiztu-nak, kulturak, ikur-rak, banderak. Bai-na zergatik ote, ba-dira maite ez ditudan kulturak eta ikurrak. Ez dut maite, esaterako, amerikar bandera, ez Europa-koa, ez alemana, ez frantsesa, ez espainola. Pisutsuak iru-ditzen zaizkit, handiak, harro-ak, sorbaldan hartzen duenari handiki aurpegia jartzera ino-koak, azpian harrapatzen duena itotzeko modukoak. Herri handienak dira.

Gustukoago ditut herri txikiagoen banderak. Hegala-riagoak iruditzen zaizkit, askatasun zaleagoak. Ez dirudi azpian inor harrapatu

nahi dutenik. Beren burua defendatu nahi dute.

Herri "handiak" zapaltzai-leak dira, herri "txikiak" zapalduak. Eta nik dudak pozik handienetako bat herri "txiki" bateko kide izatearena da, ez zapaldua izatea gustuko dudalako, zapaltzaila izatea oraindik ere zigor gogorragoa delako baizik.

Tafallan, bal-koian bandera espainiarra jartzea faxismoaren ikur-tzat hartzen dute herritarrek, baita euskaldun sentitzen ez direnek ere. Halaxe kontatu

didate. Nafar Gobernuak, ordea, ez du faxismoa ezkutatu beharrik, eta gustuko ez duena ilegalizatzeko beste urrats bat eman du: ikurr(inar)en legea.

Leitzako alkateak ikurrina kendu du udaletxeko balkoi-tik. Zer esango ote dute herritarrek? Galdetu egin behar lehenengo. Herriari hegalaria kutsua kendu dio behintzat, eta hori, zigor astuna da herri zapaldu batentzako.

"Gustukoago ditut herri txikien banderak. Hegalariak iruditzen zaizkit, askatasun zaleagoak"

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Irati Agirreazaldegia
Oihana Elortza
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
8.680 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / 242. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Lehenengo mailara igotzeko txartela lortu du gazte mailako futbol taldeak

AINTZANE IRIZAR

Azkeneko urteetan bigarren mailan jokatu ondoren, lehen mailara igotzea lortu dute Antzuola Kirol Elkarteko gazte mailako jokalariek. Oraindik bi jardunaldi geratzen dira denboraldia amaitzeko eta orain, euren helburua da ligako txapelkun izatea.

Zapatuan Oiartzungo taldeari 0 eta 4 irabazi ondoren, lehenengo mailara igotzeko txartela lortu du AKEko gazte mailako futbol taldeak.

Orain, antzuolarren helburua da liga irabaztea. Bi jardunaldi besterik ez zaizkie geratzen, eta oraingo asteburuko bereziki interesgarria eta erabakigarria izango da: euren taldean bigarren postuan dagoen Beasainen aurka jokatu du Antzuolak, Estalan.

Partidu hori irabazten baldin badute, antzuolarrak ligako finalerako sailkatuko dira. Hori gertatzen bada, igoera faseko beste taldeko irabazlearen aurka jokatu beharko dute finala; Donostiako Ekintza taldeak edo Urnieta jokatu du finaleko partidua.



laz ez ziren igoera faserako sailkatu, baina kopa irabazi zuten.

HIRU URTE BIGARREN MAILAN

Orain dela hiru urte, 2001-2002 denboraldian, egon zen azkeneko aldiz gazteen taldea lehenengo mailan. Urte hartan, baina, jende gutxiarekin geratu zen taldea

eta ezin izan zioten mailari eutsi.

Azkeneko hiru urteotan, bigarren mailan lan ona egin dute gazteek. 2002-2003 denboraldian, esaterako, igoera fasea jokatzeke sailkatu ziren; iaz, berriz, igoera

faserako sailkatzerik lortu ez zuten arren, kopa irabazi zuten.

Aurten gazteen taldean dauden jokalariek gehienak erregionalen taldera pasatuko dira datorren denboraldian.

HERRITARREN HITZA / Kontxi Laskurain • Anelkarreko kidea

Bizi-kalitatea

Hemen idatzi nuen azkeneko artikuluan Antzuolako bizi-kalitateari buruz idatzi nuen eta orduan, urrats positiboa aipatzen nuen: Aiherra eta Antzuola senidetzearena, alegia.

Oraingo honetan, baina, belarririk tirakadaxo bat eman nahi diet Udalean ibili direnei, gure herria gune berderik gabe lagatzen dihardugulako.

Nik ezagutu ditut ganorazko lau "gune berde" Antzuolako erdi-erdian: pelotaleku ingurua, Olaran eta Telleriaren jardinak eta Maristen ortuak San Jose pasealekuarekin; eta orain Sagastiko zelaia bakarrik

geratzen da asfalto eta porlan barik, San Josekoan ere parte aldapsua bakarrik geratzen baita, eta bera ez oso egoera onean.

Parke txiki politak egin dira, baina gure umeek ez daukate lurrarekin kontaktuan jolasteko aukerarik; eta ezta San Juan eta San Pedro jailetako sutan saltoka ibiltzerik ere. Izan ere, ohitura hori ere desagertzen doa, surik egiteko leku barik geratzen gozelako.



"Gure umeek ez daukate lurrarekin kontaktuan jolasteko aukerarik"

Debagoiena bailararako garraio publiko gehiago eskatu diote Gipuzkoako Diputazioari, bai eskutitzen bitartez, bai

Neuk, Sagastin, belarrezko parkea egingo nuke. Hori bai, txakurrei bertan kaka eta txiza egitea debekatu! (hau herrian arazo bihurtzen ari da eta).

Bestalde, Antzuolako bizi-kalitatea hobetzeko bidean, jubilatuek zoriondu nahi ditut aurrera eramaten duten ekintzagatik:

EITBn euren protesta azalduz, eta baita desobedientzia zibilaren bitartez ere; izan ere, Donostian abuztuan egingo diren jubilatuen nazioarteko olimpiadetan boluntario moduan parte hartzeari uko egin diote jubilatuek (boikota), protesta gisa.

Horren berri izan nuen lehen unean ez nion inportantzia handirik eman, baina orain, Oñatiko lau gazte horien heriotza gertatuta, pentsatzen dut denok mobilizatu behar dugula eskari horren inguruan, bestela... hurrengoan gure senitartekoren bat izan daiteke; eta orduan... guretako berandu izango da!

LABUR

Haurreskolan matrikulatzeko epea zabalik

Maiatzaren 18ra arte zabalik dago Haurreskolan matrikulatzeko epea. Interesaturtutako haurtzaindegira jo dezaketen edo 943 76 62 68 telefono zenbakira deitu. Familia-laguntzaren, erroldaren eta gure soen nortasun agiriaren kopiatu txertoaren kartilaren kopiatu eta kontu korrontearen zenbakia eraman behar dira. Bero ordutik beherako egonaldi gatik 135 euro ordaindu behar da; 5 eta 8 ordu bitarteko egonaldi gatik, berriz, 180 euro.

Tokiko Agenda 21en batzarra, egunean

Debagoieneko Udaltaldeak eratzeko hitzarmena sinatu zen apirilean. Tokiko Agendak 21 Ekintza Plana diseinatzeko eta garatzeko da talde horren zeregina. Antzuolako Udalak herriko eragile sozialekin eta ekonomikoekin artean proiektu zuesu hau hedatzea nahi du horrela, batzarra egingo dute, hilaren 10ean, 19:00etan, udaletxean.

Mendizabalek irabazi egin zion Ariznabarretari

Olalde elkarteko Aitor Mendizabal pilotariak 22 eta 4 irabazi zion Ariznabarretari Elgetako Lau t'erdiko txapelketan. Antzuolarrak irabazi dako txapelketa horretan jokatu zuten lehenengo partidua zen.

Kukumarro lehiaketan izena emateko aukera

San Isidro egunean, maiatzaren 15, domeka, egingo dute Kukumarro lehiaketa, Udalak antolatuta. Izena emateko epea berriz, hilaren 12ra arte, egundakoa da, dago zabalik.

IRAKURLIARENTXOKUA

UDALAREN PROIEKTUEI BURUZ

PNV-Earen idatzian azaltzen diren deskalifikazio eta fundamentalismoak alde batera utzita, zera adierazi nahi dugu:

Bat: Maristetan 50 etxebizitza eraikitzen badira, kanpo gorria gune libre bezala desagertu egiten da, inguru horretako etxebizitza dentsitatea ikaragarri igotzen da eta gizarte-kultur etxea egitea nabarmen atzeratzen da.

Bi: errekaren arazo nagusiak uholdeak eta herri-tarron segurtasuna dira, eta hori gainezkabidea eraikita konpontzen da. Erreka plazan zabaltzea ez da derrigorrezkoa, eta zabaltzekotan ere, Udaletxe parean zati handiagoa estali beharko litzateke plazaren funtzionalitatea ziurtatzeko.

Kanpo gorria, plaza eta Sagastiko parkea desagertuta, zein gune publiko gelditzen zaigu libre herrian?

Antzuolan ere ekin diezaiozun behingoz "egunsentira arteko elkarrizketari" eta adostu dezagun denon dugun etorkizunerako.

GERTU GAE

ELKARRIZKETA

EPI PEREZ/PINTOREA

"Gasteizen jarri dut erakusketa eta orain arte jaso ditudan kritikak onak izan dira"

A.I.

Epi Perez antzuolarrak 36 margolan jarri ditu Gasteizko Ciudad de Vitoria hoteleko Fournier galerian. Maiatzaren 13ra arte egongo da zabalik. Paisaiak, erretratuak, bodegoiak, loreak... denetarikoa koadroak daude.

Bakarkako lehenengo erakusketa zabaldu duzu. Pozik egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik nago; bakarka galeria baten egiten dudan lehen-dabiziko erakusketa da, baina, Antzuolako Udalak antolatuta ere jarri izan ditut nire lanak ikusgai. Beste pintore batzuekin batera ere egin izan ditut erakusketak.

Fournier galeriakoei egin zizuten gonbidapena. Zelan izan zuten zure berri?

Uste dut nire lanak ez dakit: nik si dituztela nonbait, gustatu egin zaizkiela eta horrelaxe deitu didatela.

Aurreko zapatuan zabaldu zenuen erakusketa. Zelako harrera izan du?

Bada, egia esan, oso ondo doa; badabil jendea, eta egin dizkidaten kritikak onak izan dira.



Zenbat margolan eta zela-koak jarri dituzu ikusgai?

Hogeita hamasei margolan jarri ditut; lan errealistak eta figuratiboak. Denetik dago: bodegoiak, paisaiak, erretratuak, loreak... Orain dela urte eta erdi dei-

tu zidaten, eta orduetik erakusketan prestatzen jardun dut.

Zelan hasi zinen pinturarekin zaletzen?

Txiki-txikitatik gustatzen zait margotzea; gogoratzen naiz eskolan mapak marraztea asko gus-

"Nire erronka orain erretratuak egiten zentratzea da; lan nekeza da hori pintore batendako"

tatzen zitzaidala eta lagunei ere neuk marrazten nizkien. Hasieran ez nuen ikastarorik egin; gerora egin ditut batzuk, baina, nire ustez, garrantzitsuenak praktikatzeko da; ikastaroetan baino askoz gehiago ikasten da.

Non margotzen duzu, etxean edo kanpora irteten zara?

Margolan guztiak estudioan amaitzen ditut, baina, lan handiena kanpoan egiten dut. Gainera, nik uste dut oinarrikoa dela traste denak hartu eta kan-

Momentu nonetan zertan diharduzu?

Nire erronka orain erretratuak zentratzea da; beharbada, horixe da pintore batendako lanik zailena. Izan ere, pertsona baten aurpegia, begirada eta keinuak koadro baten harrapatzea lan nekeza da.

KIROLA

PARTIDUAK

FUTBOLA

Maiatzak 7

09:30: Antzuola-Ordizia (Infantilak)

12:00: Antzuola-Urola (Neskak)

18:00: Antzuola-Beasain (Gazteak)

Maiatzak 8

11:30: Antzuola-Zestoa (Kadeteak)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antzuola 1 La Salle 2 (Erregionalak)

Oiartzun 0 Antzuola 4 (Gazteak)

Bergara 3 Antzuola 4 (Infantilak)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa

Oialde-Arehabaleta (nagusiak) . . . 22-7

ANELKAR

Hiru urteotako balorazio txostena egin dute

A.I.

Anelkar Antzuolako Elkartasun Taldeak, azkeneko hiru urteotako jardueraren gaineko txostena argitara eman du orain dela gutxi. Hantxe, 2002tik eta 2004ra arte antolatutako ekintzen, jasotako diruaren eta lagundutako proiektuen berri eman dute.

Txosten horren helburua da azkeneko urteotako jardueraren gaineko balorazioa egitea, batetik, eta bestetik, herritarrei ezagutzera ematea urteotan zenbat diru batu duten eta batutako horrekin zer egin duten.

Guztira, 50.477 euro batu dituzte herrian Anelkarreko kideek. Batutakoaren zatirik handiena Brasilgo Canudosera, Sene-

galgo Zinguinchorrera eta Kongoko Kanseniara bideratu dute. Toki horietan ur-putzuak, nekazarien kooperatibak eta eskolak bultzatu dituzte, besteak beste.

Bestalde, Uruguayra eta Ekuadorrera ere bidali dute dirua, hantxe daudelako herriko bi misiolari; Maria Antonia Etxezarreta Rosarion (Uruguay) dago; Ana Mari Iturbe, berriz, Quiton.

Bidalitako dirua

NORA	KOPURUA
Canudos (Brasil)	17.920 €
Kansenia (Kongo)	12.000 €
Zinguinchor (Senegal)	9.200 €
Rosario (Uruguay)	3.860 €
Quito (Ekuador)	3.860 €

LARREA
TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Billegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga

Apainketarako eta
industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatua
eta
bernizatzea

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2005eko maiatzaren 6a / 225. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegi • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Asentzio Eguna aurten hamargarren aldiz

IRATI AGIRREAZALDEGI

Urteroko ohiturari jarraituz, domekan Asentzio Eguna ospatuko dute Elgetan Asentzioko putzuaren inguruan. Goizean hasi eta iluntzera bitartean hainbat ekitaldi izango dira bertan. Jai honen antolakuntzaz gaztetxeak ideak arduratuko dira.

Hamargarren urtea da aurten tuko dutena, gazteak jai hau berreskuratu zutenetik. Domekan izango da eta egun horretarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte gaztetxeak.

Goizean, 11:00etan, trikitilarien eta txalapartarien doinuekin hasiko da jai, eta jendea Asentziara inguratu ahala 12:30ean meza izango da bertako ermitan.

Mezaren ostean, umeek gertatutako ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek, eta ondoren umeendako herri-kirolak egongo dira.

Bien bitartean Gure Bordan salda eta txorizoa jateko aukera egongo da eta Asentzion bertan gaztetxeak barra ipiniko dute jateko eta edariekin.



Umeendako herri-kirolak izango dira meza ostean.

Herri bazkaria egingo dute gero; bazkal ostean Elorrioko trikitilariak jardungo dute. Asentziotik herrira bueltatu eta jai amaitzeko triki-poteoa izango da.

Bestalde, Asentzio Eguna giro-tze aldera gaztetxean kontzertua izango da gaur, barikua, 22:30ean. Mendeku Itsua eta Maitips taldeek jardungo dute.

KULTURA

Joan Simo gaur gauean bakarrizketan Espaloian

I.A.

Joan Simo kataluniarrak *Quiero ser normal* bakarrizketa eskainiko du gaur, barikua, 22:30ean Espaloian.

Antzezlan honetan Simok burla egingo die ezer gutxi dutenei laguntza eskatzen dieten handi ustekoei.

Horretarako, agertokian eskaerak diru irabazi ez eta bere hanka moztuko du, urdaiazpikoa izango da hau eta jan egingo du.

BAZKIDEEK SARRERA DOAN

Emanaldirako sarrerak bost euro balio du. Hala ere, antolatzaileek esan digute oraingo honetan bazkideek doan izango dutela sarrera. Honela, Goibeko kultura emanaldietan duten parte-hartzea eskertu nahi du.

Bestalde, Espaloitik jakinarazi digute datorren asteburuan sarrerak salgai daudela. Hiru egunetarako emanaldiak ikusteko bonoak 30 euro balio du.



Handi ustekoei barre egingo die Joan Simok bakarrizketa honen bidez.

HERRITARREN HITZA / Sebas Arantzabal • Langilea

25 urte eta gero

Mendeetan herri honek jasan duen gatazkaren ondorioz, 1980ko apirilaren 28an hil zuten Xabier Arantzeta. Aurretik tortura eta kartzela ezagutu zituen. Askatu zutenean beste biderik ez zuen ikusi eta ihesari eman zion.

Garai haietan gutxi uste izango zuen 25 urte geroago, gatazkak berdin jarraituko zuenik.

Orduan jaiotzeke zeuden gazte asko gaur egun ihesean edo kartzelan daude, herri honen alde egiteko beste biderik ikusten ez dutelako. Beste batzuek mende laurden

hau kartzelan eman dute.

Baina badago, nola ez, 25 urte hauek ondo pasatu dituenik ere.

Hemengo eta hangoekin negoziatuz, beti agente guneetan egon direnak. Politiko profesional bihurtuz, poltsikoak majo bete dituztenak. Egoera honetan gustura daude, arazo guztien errua indarkeriari botaz. Normalizazioak ekarriko lukeen iraultza



“Ideia ezberdinetako herritarrok mugitu beharra daukagu”

gara poltsikoari eta aulkiari begira dauden politikoei begira gelditu.

politikoaren beldur dira, hauek ez dute konponbiderako ez presarik ezta presorik ere.

Orain gauden bidegurutze honetan, ideia ezberdinetako herritarrok mugitu beharra daukagu, ausardiaz, bakoitzak bere inguruak astinduz. Ezin dugu beste 25 urtetan gatazka usteltzen utzi. Ezin

Batzuk konponbiderako presa eta presoak ditugu. Bide horretan Nazio Eztatidaguneko akordioa, bertara hurbildu nahi duenarendako. Ateak irekita utziz, oinarri sendoa izango dugu.

Beste pauso batzuen beharra ere badago: armak dituzten aldean arteko elkarrikeriak eta gatazkaren humanizazioan bidea egitea.

Gaur egungo gazteei aukera eman behar diegu, egoera demokratiko batean, ihesa eta kartzela ezagutu gabe, gazte euskaldun errebelde bezela antolatu eta herri honen alde borrokatzeko.

LABUR

Erretiratuendako mendi ibilaldirako izenematea zabalik

Donostiako Erretiratuen eta Pentsiodunen Elkarteak antolatuta mendi ibilaldia izango da datorren abuztuaren 31n Donostia inguruan. Ibilaldi honetako partaideak lau laguneko taldeetan joango dira. Aurrez ere behin baino gehiagotan parte hartutakoak dira elgetarrak ibilaldi honetan. Aurten taldea osatu eta mendiko ibilaldian parte hartu nahi duten Elgetako erretiratuek maiatzaren 10a baino lehen eman behar dute izena Miren Villarri deituta (943 760094).

ELKARRIZKETA

ALBERTO TELLERIA/FILOLOGOA

“Euskara bultzatzeko kanpaina onena dakienak leku guztietan erabiltzea da”

I.A.

Elgetako euskararen gaineko hitzaldia egingo du Alberto Telleriak gaur arratsaldean liburutegian. Gai horri buruz hitz egin dugu berarekin, eta herriko euskararen nondik norakoan berri eman digu.

Elgetako euskararen nondik norakoak izango dira hitzaldian berbetarako gai. Zein da euskararen egoera Elgetan?

Orokorrean ona. %85ak baino gehiagok daki euskaraz; erabilera ere handia da, eta edozein tokitan gainera: administrazioan, osasun arloan, Udaleko zerbitzuetan, tabernetan, kalean... Eskolatik umeak alfabetatuta ateratzen dira eta aukera dago komunikabideak euskaraz entzun edo irakurtzeko. Antolatzen diren ikuskizunak, gehienak, euskaraz egiten dira; ikuskizun horiek iragartzeko kartelak, baita beste asko ere, euskaraz azaltzen dira...

Herrian zein gunetan egiten da batik bat euskaraz?

Nire ustetan herri osoan egiten da. Aukera egon badago, eta

ez duenak egiten ez dakielako edo ez duelako nahi da. Horren kontra ezer gutxi dago egiteko.

Azken urteetan nabaritu duzu aldaketarik euskarari dagokionez herrian?

Bai, aldaketa herria aldatu ahala gertatu da, herriko eta bertako biztanleen bizimodua aldatu ahala, alegia. Hizkuntza garai berrietara egokitu behar da, eta gaitasun horri esker bizirik irauten du. Hizkuntzaren garapena modu hobean edo eskastxoagoan egin daiteke, baina, gutxienez, bizirik dagoen seinale izango da.

Euskara bultzatzeko herrian egin diren ekimenek izan dute eraginik?

Jakina baietz. Hala eta guztiz ere, Elgetan kanpaina eta ekimenik onena dakienak gaur arte

moduan euskara leku guztietan erabiltzea litzateke.


Berbeta berua liburua kaleratu zenuenetik sumatu duzu kalean euskarazko esamoldeak gehiago erabiltzen direla?

Ez zeukan helburu didaktikorik liburuak, baina poztuko nintzateke hemendik hamar hamabost urte barru gazte jendeak asmatutako esamolde berrien bilduma ateratzeko materiala balego. Hori bai izango litzatekeela poztekoa!

Gero eta atzerritar gehiago dago herrian. Nola animatuko zenituzke euskara ikastera?

Ez da erraza, kontuan izan behar dugu, 2010. urterako atzerritarrek biztanleen %10 izango direla. Elgetan ez dakit horretara iritsiko den, baina horri aurre egin beharko zaio. Denok nahi dugu etorkinek normalizazio prozesuan parte hartzea eta, gutxienez, etorkin gazteek jakin dezatela zenbat eta gehiago jakin aukera gehiago izango dutela. Hala eta guztiz ere, gai honen inguruan entzun nuen "lehenengo oilosopia eta gero filosofia" eta ez dakit etorkinen lehenengo belaunaldietan ez ote den hori gertatuko.

“Aukera badago euskaraz egiteko, eta egiten ez duenak ez dakielako edo nahi ez duelako da”



IRATI AGIRREAZALDEGI

HEZKUNTZA

Haurreskolako matrikulazio epea zabalik datorren ikasturterako

I.A.

Iazko irailean zabaldu zituen atak Elgetako haurreskolak, eta ikasturtea aurrera joan ahala datorren irailerako matrikulazio epea zabaldu dute.

Maiatzaren 18ra arteko epea izango dute interesatuek izena emateko. Horretarako, haurres-

kolan bertan jaso daitezke eskaera orriak, 9:00etatik 16:00etara bitartean. Bestalde, informazio gehiago nahi izanez gero bertara joan daiteke edo telefonoz deitu (675 707 015).

AURTEN BOST UME

Ikasturte hasieran hiru umek eman zuten izena haurreskolan,

baina kurtsoa aurrera joan ahala beste bi gehitu zaizkie eta orain bost ume daude bi irakaslerekin.

Datorren ikasturterako zentzat ume espero dituzten galdetuta esan digute, “gurekin dauden bi ume 2 urteko gelara pasatuko dira; beste bat uztailean hasiko da eta datorren ikasturtean beste bi sartuko direla uste dugu”.

KIROLA

PARTIDUAK

ETB KANTXA (PILOTA)

Maiatzak 6

21:00: X. Arrastoa-Lazkoz (23 urtez azpikoak)

Gero: Cabrerizo-Etxaniz (23 urtez azpikoak)

Gero: Uriarte-Argote (23 urtez azpikoak)

Gero: Olaetxea-Txertudi (23 urtez azpikoak)

Maiatzak 8

11:00: Ezeiza-Barberepa (Kadeteak)

Gero: Jaka-Vazquez (Kadeteak)

Gero: Urrutikoetxea-Oiarzabal (Kadeteak)

Gero: Iturrioz-Arretxe (Kadeteak)

ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Maiatzak 7

15:00: Vicios-Makanaki. Añiketan

16:00: Isspro-Añiketan. Vicios

17:00: Fuxion-La Kokotxa. Maccabi

18:00: Maccabi-Txapela. Fuxion

Maiatzak 7

16:15: Madariaga-Bergera (Kadeteak)

Gero: Alvarado-Lopez (Kadeteak)

Gero: Ezkurdia-Afillano (Kadeteak)

Gero: Errea-Garcia (23 urtez azpikoak)

OSMA
PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salvador kalea 19 behea • 20690 ELGETA

Tel.: 943 768 127
Mobila: 677 032 739

**JAR EZAZU
HEMEN
ZURE
PUBLIZITATEA**

Goibekokale

BOLINAGA
METALAK


**SALVADOR 7
ELGETA 20690
GIPUZKOA**

TEL: 943 76 80 64
FAX: 943 76 83 01

Oñati

OÑATI / Egubakoitza / 2005eko maiatzaren 6a / 5. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oihana Elortza • Barrenkalea 33 BERGARA 20570 • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 71 29 77 • Posta elektronikoa: oinati@goiena.com • Lege gordailua: SS482/05



Herriaren bizi kalitatea hobetzeko dira Agenda 21 eta iraunkortasun foroa.

Iraunkortasun Foroa sortzeko deia egin dute

OIHANA ELORTZA

Oñatiren bizi-kalitatea hobetzeko sortu gura dute iraunkortasunaren foroa. Foro hau zabala izango da eta Oñatiko egoera soziala, ekonomikoa eta ingurumenarena aztertuko ditu; gero Udalari aurkeztuko dio bere lana. Maiatzaren 17an da hurrengo bilera.

Tokiko Agenda 21 proiektuaren zati bat da Iraunkortasun Foroa. Agenda 21 udalek hartzen duten konpromisoa da, herriaren bizi-kalitatea hobetzeko, eta Iraunkortasun Foroak udalari eman-gio dio herriari buruz duen iritzia. Honek, gero, Agenda 21 tresnarekin kontuan hartu ditzan. Oñatiko Udalak ere Agenda 21 konpromisoaren alde sinatu du eta iraunkortasunaren foroa abian jartzeko deia egin zuen martitzeneko aurkezpenean.

Rio de Janeiron 1992an egin zuten goi bileran sortu zuten Agenda 21 proiektua. Hau da udalek herriaren aldeko bizi-kalitatearen alde lana egiteko hartzen duten konpromisoa, eta iraunkortasunean oinarritzen da.

IRAUNKORTASUN FOROA

Oñatin ere herritarren batzarra edo Iraunkortasun Foroa sortzeko deia egin dute orain. Foro honek egingo du, lehendabizi, Oñatiren diagnosi bat arlo sozialari, ekonomikoari eta ingurumenari dagokionez. Hiru atal hauek herriko batzarrean eztabaidatuko dituzte SAMA metodologia aplikatuz; hau da, kontuan izango dituzte Oñatiren sendotasunak, ahultasunak, mehatxuak eta aukerak. Behin diagnosis eginda, helburuak finkatuko dituzte. Adibidez, garraio publikoaren egoera aztertuko dute eta erabaki beharko dute nahikoa den edo ez, zergatik, eta zer egin daitekeen arazoa konpontzeko.

Diagnosis egitea eta helburuak finkatzea izango da Iraunkortasun Foroaren lehen lana.

Foroak Oñatiko egoera soziala, ekonomikoa eta ingurumenarena aztertuko ditu

Bigarrena, berriz, helburuak betetzeko ekintza planak finkatzea eta adierazle ezberdinei esatea.

FOROAREN EGUTEGIA

Kalkulatu dute hemendik urtea amaitu bitartean bost-zazpi biler egingo dituztela Oñatiren diagnosis egin, helburuak finkatu eta ekintza planak zehazteko. Lehen bi bileretan egingo dute herriaren diagnosis eta saiaturko dira uda heldu baino lehen egiten bilera hauek. Urriatik aurrerako bileretan helburuak finkatu eta ekintza planak diseinatuko dituzte.

Herri batzar hauek kontsultarako izango dira. Foroak bere eztabaidetan oinarritutako iritzia eta proposamenak emango dizkio udalari, eta honek iritzi horiek betetzen saiaturko delako konpromisoa hartu du.

Iraunkortasun Foroa zabala izango da eta edozein herritarrek parte hartu dezake. Hurrengo bilera maiatzaren 17an da, 19:00etan kultura-etxean. Udaltxean edo Mankomunitatearen bulegoetan ere jaso ahal da behar den informazio guztia.

MUSIKA

Jazza eta Iparraldeak, 27. Musikegunetan

LEIRE KORTABARRIA

Ganbara abesbatza, jazzaren gaineko ikuskizuna eta kontzertu didaktikoa eta Iparraldeko doinuak: horra hor Oñatiko 27. Musikegunetako aurtengo eskaintza berezienak. Atzo, eguna, aurkeztu zuten jaialdia Oñatiko eta Azkoitiko Udalek eta Foru Aldundiak.

Astebururo izango da saio bat. Hilaren 8, 15 eta 22koak Santa Anan dira; 28koa, Zubikoan.

Neofusion taldeak hasiko du zikloa. Gaur egungo musika klasikoa eta XX. mendeko era guztietakoa sustatzen dituzte.

Ganbara abesbatzak hilaren 15ean egingo du saioa. 10. urterena izan zuten iaz, eta maila artistikoa aspaldi erakutsia duenez, aurten egitarauan daude.

KONTZERTU DIDAKTIKOA

Kontzertu-ikuskizun didaktikoa izango da hilaren 22an. *Tam tam* Tom tom, Pirineos Jazz Orchestra taldearen eskutik. Taldea berezia da, musika eta antzerkiaren artean uztartzen dituelako.

Azkenik, 28an, Iparraldeko Oñatin egitasmoaren barne, Herri Truku, Niko eta Dominika Elortza eta Robert Larrandaburu, eta Maddi Oihenartek aritutako kontzertu aurtengo edizioa ixten.

TOPAKETAK


Elkartasun taldeek topaketa dute bihar

O.E.

Donostiako Elizbarrutiko elkartasun taldeetako kideek topaketak egingo dituzte bihar, zapatua. Urtero egiten dituzten topaketa hauek Oñatin egingo dituzte aurten eta Oñatiko Parrokiako Misio Taldeak antolatu ditu udalaren laguntzarekin. Kultura-etxean izango dira.

Topaketa hauen helburua da gaur eguneko gai baten inguruan hausnarketa egitea batetik, eta beste taldeetako lagunekin topaketa egin eta eguna elkarrekin pasatzea, bestetik.

Otoitza, taldeen gaineko informazioa, bazkaria eta musika kontzertua antolatu dituzte, besteak beste. Paul Nicholson ere etortzen da hitzaldia ematera.



Paul Nicholonek *Elikadura subiranotasuna* hitzaldia emango du 10:30ean.

BANEKI

Debagoieneko gaztetxoaren saioa

Astelehen eta eguenetan
21:00etan

Aurkezlea:
Mikel Aranburu



Ikustekoa!

BANEKI
Antolatzaileak:



Laguntzaileak:

Eroski Bidaiak, Bocatta, Florida eta Guridi, Ikastolen Elkarte.

Zozketa

Uztaileko finaleko
talde irabazleak
PORT AVENTURARA
bidaia zoragarri bat
irabaziko du!

BANEKI

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Zoru aukera zabala
Tarimak
Parket flotatzaileak, bernizatuak eta estratifikatuak



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objektuen pintaketa



AZKARATE
AROTZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorak, haizetako panoramiko eksklusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeko behar duzun guztia.
www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak eginga dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakura ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra GTC. Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (g/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA




Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 48. alia

IEPA LAGUNOK!

Hemen nator berriro be, zuekin ondo pasatzeko asmuarekin. Primeran egin ziñuzten aurreko aleko ariketak. Ia orainguan be fin zabizten. Badakizue datorren astian Bergarako jaixak hasiko dirala?


Zelako ondo ezta? Barraketan ibilli, postuetan gauzak erosi eta parranda piska bat be bai, ezta? Betiko moduan erantzun orrixak bete. Laguntza bihar izan ezkeru familixako norbaiti galdetu eta ondoren zuen ikastetxian entregatu bihar dittuzue.

ZORTE ON!



IKUSI MAKUSI

1 -Zer dala eta zer dala; kendu ahala haunditzen dana?



2 -Zelako harrigarrixa! Zer dala eta zer dala txakurrentzat goxokixa, guretako, berriz, harrixa?

3 -Agertu eta desagertu, desagertu eta agertu, kalian jarraitzen dost nigandik gertu ?

URREZKO ARAUAK

Egoera jakin batian egingo giñukiena edo zer gertatuko litzakien esaterakuan batzuetan *okerrak* egi-tten dittugu; adibidez:

-Ni txorixa *bañintzæn*, zoriontsu izango *ñintzæn*.

-Zu poxpolin jantziko *baziñæn*, oso guapa egongo *ziñæn*.

-Ni txorixa *banintz*, zoriontsu izango *nintzake*.

-Zu poxpolin jantziko *baziña*, oso guapa egongo *ziñake*.



Nintzan, ziñan eta halako aditzak beti lehen gertatutakuak dira, eta ez dabe balixo oinndiokan gertatu ez dan gauza bat esateko.

ESAMOLDIAK

Zer esaten jako gelan azkena sartzen danari:

A Azkena, ipurdi zikin.

B Azkena, ipurdi haundi

C Azkena, ipurdi gizena.



OHARRA

Hemendik aurrera jolas bakoitza marrazki batekin juango da, honetxek dira:

Loria: 3-6 urteko umeentzat gomendatua

Baloia: 7-9 urteko umeentzat gomendatua

Kometia: 10-12 urteko umeentzat gomendatua

KANTUA

Zeintzuk dira hutsunietan falta diran berbak? Lotu letrak eta zenbakixak eta ia asmatzen dozun!

Behin batian Loiolan _____ A _____ zan,
hantxe ikusi nuen neskatxa bat _____ B _____:
_____ C _____ bat baino ere ariñago _____ D _____;
huraxe bai politta, han politik bazan!

Esan nion desio senti nuen gisan,
harekin hizketa bat _____ E _____ nuela izan;
erantzun zidan ezik atsegin har nezan,
adituko zidala zer nahi nion esan.

Aurkitu giñenian iñor gabe jiran,
koloriak _____ F _____ arazi zizkidan;
kontatuko dizuet guztia segidan,
_____ G _____ esan nion eta nola _____ H _____ zidan.

-Dama polita zera, polita guztiz ai!
Baina hala ere zaude oraindik ezkongai,
_____ I _____ gaittezen biok! esan zaidazu bai!
-Ni _____ J _____ ezkondu? Ni zurekin? Jai-jai!



- 1-plazan
- 2-erantzun
- 3-txori
- 4-zurekin
- 5-erromeria
- 6-zer
- 7-ezkon
- 8-nahi
- 9-dantzan
- 10-gorritu


JOLASA

MARRASKILLUA


Lurrian marraskillo bat marraztu klarionarekin, eta ondoren marratxo batzuekin borobillak zatitu, marrazkixan ikusten dan moduan. Marraskilluaren zati batzuk aukeratu eta A letria idatzi bertan.

Gero, jokalarixen artian zotz egin ze jokalaria hasiko dan jakitteko. Lehenengo jokalarixa hanka baten gaiñian jarri eta marraskilluaren zati batetik bestera saltoka juango da, baiña marrak zapaldu barik. A letradun laukira aillegatzen danian, bi hankak lurrian jarri eta atsedean hartuko dau, baiña laukittik irten barik.

Jokalarixak marria zapaltzen badau, lauki horretan bere izena idatziko dau eta hurrengo jokalarixa hasiko da saltoka; hurrengo jokalarixak berdin egingo dau, baiña lagunaren izena daguan laukixa salto batez pasatu biharko dau eta marra zapaltzen badau berak be bere izena idatziko dau dagokixon laukixan. Jokalari bakoitzaren txandia aillegautakuan lehen geratu dan puntutik aurrera jarraituko dau. Marraskilluaren erdira aillegatzen dan lehenenguak irabaziko dau.



KOMIKIXA



HERRI OLINPIADAK


Herri Olinpiadak antolatu ziran Angiozarren. Gazte askok hartu ziñuen parte eta bertako girua zoragarria izan zan. Baiña badakizue zein izan zan bukaerako sailkapena? Zeiñek lortu zittuan puntu gehixen?



Lehenengo froga zaku lasterketiarena izan zan. Bertan sei pertsona honek hartu zebeu parte: Miren, Beñat, Xabier, Ainara, Nahikari eta Jonek. Beñat izan zan lehenengua, bigarren Nahikari, hirugarren Jon, laugarren Miren, bosgarren Ainara eta azkena Xabier.

Bigarren froga, berriz, txinga lasterketia izan zan. Txingak eskuan eruanda ia zein aillegatzen zan lehenen helmugara. Beñat hirugarren geratu zan, Xabier laugarren, Ainara lehenengo, Jon bosgarren, Nahikari bigarren eta Miren azkenengua.

Parte hartzailliak atsedena hartzeko aukeria izan zebeu 15 miñutu. Bittartian antolatzailliak artakaskarak zegokixen lekuan jarri zittuen, hurrengo froga kaskara batzia zalako. Inddarrak hartu eta gero, parte hartzailliak Olinpiadarekin jarraitu zebeu. Lehenengua Jon izan zan, bigarrena Nahikari, hirugarrena Beñat, laugarrena Xabier, bosgarrena Miren eta azkena Ainara.



Lasterketen ondoren parte hartzailliak euren abilidadia erakutsi bihar izan zebeu hurrengo frogan. Zintzarri eta gomaz osatutako zirkuito moduko bat pasau bihar izan zebeu, gomia ikutu barik. Azkenian emaitzak honetxek izan ziran: Ainara lehenengo, Xabier bigarrena, Miren hirugarrena, Jon laugarrena, Nahikari bosgarrena eta Beñat azkena.



Beste hamar minutuko atsedenaldi laburraren ondoren, arrautziaren lasterketia egin zebeu. Goillara baten gaiñian arrautzia jarri eta goillaria ahuan zeukela, lasterketia egin zebeu. Amaieran, Nahikari bigarrena, Miren laugarrena, Jon lehenengoa, Beñat bosgarrena, Xabier hirugarrena eta Ainara azkena heldu ziren helmugara.



Herri Olinpiadetako azken froga luzera saltua izan zen, partaidien gustokuena izan zana. Miren bigarren geratu zen, Ainara lehenengo, Xabier hirugarren, Jon seigarren, Nahikari bosgarren eta Beñat laugarren.

- Baina, zeñek irabazi zeban danera? Zein izan zan irabazlia, froga danetako postuak kontuan hartuta?
- Proba bakoitzeko lehenan 6 puntu emon, bigarrenari 5, hirugarrenari 4, laugarrenari 3, bosgarrenari 2, eta seigarrenari 1.


	ZAKU LASTERKETIA	TXINGA LASTERKETIA	ARTAKASKARA BATZIA	IKUTU BARIK	ARRAUTZA LASTERKETIA	LUZERA SALTUA	DANERA
MIREN							
BEÑAT							
XABIER							
AINARA							
NAHIKARI							
JON							

FORMULA MAGIKUA

Umiari hagiña jausten jakonian, berrixa laster
urten dakixon, hagin zaharra teillatura bota
eta formula hau esan bihar da:

Maritxu teillatuko
gona gorriduna
eutsi hagin zaharra ta
ekarri berrixa

Probau! Probau!
Probau!



TXISTIAK

BEGIXETAKO MIÑEZ

Joxek begixan min haundixa zeukan eta medikuarenera
juan zan. Medikua esan zotsan:

- Trankil motel, ez daukazu betaurreko biharrik. Azenarixoa asko jan eta kitto. Azenarixua da begixendako onena.
- Eta zuk zela dakizu hori? – Galdetzen dotsa Joxek.
- Oso samur. Zuk ikusi dozu sekula untxirik betaurrekuekin?

PERNANDOREN ARRAIÑAK

Amak Pernandori:

- Zergaittik ez dotsezu arraiñei ura aldatu?
- Amaaaaa, ez dozu ikusten oinndiokan ez dabela ur dana eran ala?

HEGAZTIXEN LUMAK

- Izeba, zergaittik dauzke lumak hegatzixak?
- Luma barik oso zatarrak izango lirakielako, Praisku.
- Eta orduan, zergaittik ez dittuzu zuk be lumak jazten?

LIBURU GOMENDIXUA



Marixa bertsuak asmatzen dittuan neska bat da, eta honek idatzi ondoren bere motxilan sartzen ditu. Bere herrixan lapurreta bat gertau da eta poliziak Marixa lapurra dala pentsatu dau, antxintxikan zihoialako eta motxilia beteta zeukalako.

Neri ipuin hau asko gustau jat, oso dibertigarrixa dalako eta oso bertso polittak dauzkalako.

Izenburua: Marixa poetisa
Egilliak: Txabi Arnal Gil
Argitaletxia: Ibaizabal

ERANTZUNAK

Juan zan hilleko lehiaketaren erantzun zuzenak:

- **IPUIÑA:** Zein da hutsune bakoitzian falta dan berbia?
a) JAN b) ERREKA c) ETXE d) BIXIGUA
- **ZEIÑEK** edo zerk egitten dau soiñu bakoitza?
Lotu zenbakixak eta letrak
1) d 2) a 3)g 4)c 5) f 6) b 7)c
- **JOLASA:** Baietz asmatu soken bi muturrak lotzen!
nik.....NEIKE, zuk.....ZEINKE
harek.....LEIKE, guk.....GEINKE
zuek.....ZEINKIE, harek (haiek)....LEIKIE

IRABAZLIAK



Katixa Linazisoro
11 urte
Mariaren lagundia

Apirilleko irabazliak:

2.a Maite Santxo,
San Martin Agirre ikastetxea
3 urte

3.a Itsaso Mujika
Aranzadi eskola
9 urte

Zorionak hiruroi!

Ondo-ondo pasau eta gutxi gastau jaixetan.



JONE AGIRREZABAL
Mariaren Lagundia Ikastola
5. MAILA
10 urte